



# FITORE

## KOSTUAK

Enpresa guztietan bezala, Fitore enpresa aurrera eramateak kostu jakin batzuk dakartza. Gure negozio-eredua egokia izateko, ezinbestekoa da gure enpresako prozesuen gastuak zeintzuk diren aztertzea, eta baita horiei aurre egitea ere.

Kostu hauei dagokionez, Fitore aplikazio bat denez geroztik, nahiko kostu murrizak eta zehaztuak ditugu. Izan ere, lehenik eta behin, aplikazioa sortarazteko soilik teknologia-tresneria bat eduki beharko dugu. Enpresa kide gehienok, baditugu ordenagailuak, mugikorrak eta abar. Baina ez litzaguke gaizki etorriko inbertsio txiki bat egitea gure aplikazioa erraztasun eta kalitate gehiagoz sortu ahal izateko. Ondorioz, lehen kostua, hasierako inbertsio bat izango da, non 2150€ ordaindu beharko ditugun, 2 ordenagailu, eta ofizina sortzeko bi mahai eta 5 aulki erosi beharko ditugulako.

Horri lotuta, kalitatearen alorra oso garrantzitsua eta baliozkoa dela iruditzen zaigu, zeren eta, gure enpresa, balioan oinarritutako negozio-eredu bat da, non, gure interes handiena ez den izango kostuak minimizatzea, gure bezeroei balioa eskaintzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.) baizik. Kalitatea lortzeko horretan, pertsonalizazio-maila handia ere eskaintzen dugu.

Kostuetara bueltatuz, kontuan izan beharko dugu zein kostu finko eta zein kostu aldakor izango ditugun. Kostu finkoei dagokionez, alokairua horietako bat izango da. Bertan, enpresako guztiok espazio berean egingo genuela lan adostu dugu, hau da, ofizina batean. Ofizina hori, Errenteriako Biteri kalean aurkitzen da eta hilero 600€ ordaindu beharko ditugu. Beste kostu finkoetako bat, enpresa kide bakoitzaren soldatak dira. Fitore enpresan, 5 enpresakide garenez eta bakoitzak 1500€-ko soldata izango duenez, guztira soldateri dagokionez, 7500€ ordaindu beharko ditugu hilean. Ofizina egiteko beharko dugun leku hori alokairu bat ordainduz eskuratuko dugu, non hilabetero diru kantitate finko bat ordaindu beharko dugun. Kostu finkoekin amaitzeko wifia eta App Store kuota ordaintzea geratzen zaigu. Esate baterako, wifari dagokionez hilabetero 60€ ordaindu beharko ditugu eta App Store kuotari dagokionez (jendeak gure aplikazioa eskuragarria izateko lekua), urtean 99€ ordaindu beharko ditugu.



# FITORE

Bestetik, kostu aldakorrei erreparatuz, argia ordaindu beharko dugu. Argia kostu aldakorra da, izan ere, geroz eta ordu gehiago egon ofizinan, gehiago ordaindu beharko dugu, hau da, hilerio faktore honek edukiko duen kostua desberdina izango da. Egunean 8 ordu lan egingo ditugula kontuan hartuz, egunean, 9,68€ ordaindu beharko ditugu. Ondorioz, hori jakinda, hilean argindarrarengatik, 290,4€ ordaindu beharko ditugu.

Diru sarrerekin jarraituz, irabazi-iturrien atalean zehaztu genuen moduan, gure diru sarreren %20-a publizitatearengatik jasoko dugu. Irabazien %60 salmentetatik bereganatuko dugu. Gure bezeroak coolinary enpresari sortutako irabazien %10 guretzako izango da. Hortaz, diru sarrera hori gure irabazien %20 izango da.

HASIERAKO INBERTSIOA	DIRU SARRERAK	KOSTUAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Materialak</li><li>- Ordenagailua =2000€</li><li>- mahaiak = 100€</li><li>- aulkiak= 50€</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Publizitatea %20<ul style="list-style-type: none"><li>- 2.800</li></ul></li><li>- Salmentan %60<ul style="list-style-type: none"><li>- 8.400</li></ul></li><li>- Coolinary %20<ul style="list-style-type: none"><li>- 2.800€</li></ul></li></ul>	<p>KOSTU FINKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Alokairua<ul style="list-style-type: none"><li>- 600€</li></ul></li><li>- Soladatak<ul style="list-style-type: none"><li>- 1500€/pertsonako</li><li>- hasieran 5 langile</li></ul></li><li>- App Store Cuota<ul style="list-style-type: none"><li>- 99€ urtean (8.25 hilean)</li></ul></li><li>- Wifi<ul style="list-style-type: none"><li>- 60€ hilabetero</li></ul></li></ul> <p>KOSTU ALDAKORRAK</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Argia<ul style="list-style-type: none"><li>- 1,21€ orduko</li></ul></li></ul>
<b>GUZTIRA: 2.150€</b>	<b>GUZTIRA: 14.000€</b>	<b>GUZTIRA: 8.204,54€</b>

**KOSTU TOTALAK** (egunean 8 ordu lan egingo ditugula estimatuta)

$$- \text{KT} = \text{KF} + \text{KA} \rightarrow \text{KT} = 8.168,25 + 73,8 \rightarrow \text{KOSTU TOTALAK} = 8242,05\text{€}$$

**MOZKINA**

$$- \text{M} = \text{DS} - \text{KT} - \text{HI} \rightarrow \text{M} = 14.000 - 8.204,54 - 2.150 \rightarrow \text{MOZKINA (Lehen hilabetean)} = 3.645,46\text{€}$$

$$- \text{M} = \text{DS} - \text{KT} \rightarrow \text{M} = 14.000 - 8204,54 \rightarrow \text{MOZKINA (irabaziak)} = 5.795,46\text{€}$$

Ondorioz, gure enpresak ez ditu galerak jasango, irabaziak baizik. Irabazi horiek proportzionalki haziko dira izan ere geroz eta deskarga gehiago izan, irabazi gehiago izango ditugu.